

My First Day in the USA

Goikoetxea explains his exodus from Nafarroa and his first impressions of life in the United States.

Gaztetik atera ni
jaiotako herritik
ordun partitu nintzan
fameli aunditik;
bihotza penarekin
ia lertun erditik
famelia uztea
malkoak begitik
hainbat pena ez dit eman
sekulan Gorriti'k.

Etxean gurasoak
ta hamar senide
osaba ta izoa (izeba)
lehengusu ta ahaide;
herrian ezagunak
hainbeste adiskide
utzi ta Amerikara
etorri alaide
ogia irabaztera
horrenbeste bide.

Pena ateratzea
leku xamurretik
apartera banua
holako lurretik;
ezin ahaztua daukat
halako agurretik
"etzaitut ikusiko"
amak beldurretik
gaizkiturik jarria
bi astez aurretik.

Han utzia ote nun
nik paradisua?
Penak ezin gordea
gurasoen sua;
"nunahi zerala guri
eman abisua
utzitzen zaitugu
semetxo gaisua;"
itsatsia daukat nik
orduko muxua.

Han utziak ditut nik
oroimen bigunak
jaiotako herria
eta ezagunak
baita're famelia
baita're lagunak
azken orduak ziran
penaz ta ilunak
etzaitzkit neri ahaztutzen
hango azken egunak.

Aitak eman azkena
ne'i laguntasuna:
"esan ezbadizugu
guk maitetasuna
izan zazu pakea
eta osasuna
azkenik hau da zuri
eskatzen zaizuna
etzazu ahaztu herria
ta kristautasuna."

Etorrita gauza hau
pentsan egon nintzan:
Desertura eraman
basa piztin gisan.
Gazte batentzat bizi
modua hoi al zan?
Ez gendun denpoik pasa
herrian t'elizan
ordu tristeagorik
ez det inoiz izan.

Honera etorrira
hasera zorrotza
hizketan ere ez jakin
hau leku arrotza
leku aundiak eta
ibilera motza
Amerikan bizi ta
Euskadin biotza
jaiotako lekuan
nahi det heriotza.